


EL ULTIMO... JULIO

KAGETA

«EL último, Julio Kageta». Behin irratsaio batean taldekide batek esan zuenez, Ermuko umeek lasterketak egiten zituztenean botatzen zuten oihua da. Aspaldiko kontua, dagoeneko ia galduta, zoritxarrez. Hauei, orain, ezin zaie kontua aplikatu, ez dira gure herrian rock talde bat osatzen ausartu drien azkenak, eta partaideak gazteak izan arren, taldea ez hainbeste.



Bosteko honek osatzen du Julio Kageta.

Duela bost urtetako rock-kume mor-do hartatik geratzen zaigun rock talde bakarra dugu *Julio Kageta* hau. Orain bi hilabete eskas, maketa berria plazaratu zuten, azkenengo bi urtetako lanez osatuz, eta Ekainerako bere lehen «plasti-koa» espero da kalean.

GALDERA: Ermuan, rock and rolla eta Euskaraz. Nola uler daiteke koktel hau?

ERANTZUNA: Ba, koktel horretan esan duzun lehenengo osagaia berez ulertzen da. Ermuko 14 urtetako gaz-

teak ginelarik, nahiz eta hemengo baldintzak oso txarrak izan, ez genuen inor joateko aukerarik, gainera inguruko herrietako taldeak, gurearen antzeko baldintza txarretan aritzen ziren, eta badi-ra. Hori zela eta... Ermuan.

Rock-a? Ba... gehien atsegin zaigun, gehien entzuten dugun eta hoberen egiten dugun musika delako. Ez luke zentzu haundirik beste edonolako musika motarik egiteak. Beraz... rocka. Eta euskaraz, momentu hartan, Euskal Herrian, eta bereziki Ermuan, Euskararen kalte-

rako ematen den desoreka hau konpon-tzea, euskaldunoi dagokigula ulertu genuelako, gainera horrek, gero denborak frogatu duenez, kriston inzidentzia izan zezakeen jende gaztearengan. Horregaitik Euskaraz.



'Rock-a? Ba... gehien atsegin zaigun, gehien entzuten dugun eta ho-beren egiten dugun mu-sika delako'

G: Ermukoak izatea; abantaila ala desabantaila?

E: Denetik noski. Agian geografia aldetik abantaila, zeren eta Bizkaia eta Gipuzkoa artean gaudenez ezin bait gara inguru konkretu batetara mugatu, Bilboko eta Donostialdeko taldeak bezala, gure inbidentzigunea zabaltzeko aukera eta zabladu beharra daukagu nahitanahiez. Bestalde, Ermuan Rock jaialdi onak antolatzen dituzte egon da azken hamarkada honetan, herriko gazteengan kriston eragina izan duelarik. Beraz, ez da kasualitate hutsa gure herriak bizi izan duen mugida musikala, izugarrikoa, inguruko herriei konparatuz. Gainera, guri horrek, nolabait, Euskal Herriko mugida musikarekin kontaktuan egoteko eta talde onekin jo- teko aukera eman digu. Alde horretatik begiraturaz, abantaila dudarik ez.

Bestetik, desabantailak ere, jakina. Daukagun udal osaketarekin Udal Go- bernua daukatenean, denon dirua gasta- tzen dutenek gorrot dioten rockan- droll-ari eta are gehiago euskaraz egiten bada. Gu hasi ginenean ez zegoen he- rriam musika egiteko infrastruktura minimorik ere, eta orain dagoena, ezer gutxi, udalarena da, ez herriarena, eat gu herriko taldea gara, inolaz ere udala- rena. Hau ulertzen duzu, ezta?

Ermuan makina bat bider jo dugu, eta bakarrik behin udalaren presuestoa- rekin, espediente bat betetzeko asmoz, ur- tero egiten zen «24 ordu euskaraz» edo mugida hartu. Eta udalak ez zigun or- daindu ez guri ez «Zarama»koei, ezta soinu eta argia jarri zituztenei ere, oraindik zor dizkigute 50.000 pza haiek.

G: Ermuan jo duzunean, zer mo- duz?

E: Orain arte superrondo, jendeak as- ko lagundu digu, arestian esan dugunez, askotan jo dugu Ermuan, 20 aldiz edo, gehienetan baldintza txarretan. Soinu eskasa, tarimarik gabe, kobratu barik, kalean eta abar. Baina halere jendea de-

laostia, entzulego aditua daukagula esan daiteke. Badakite zer egiten dugun, eza- gutzen gaituzte, eta espero dugu he- mendik aurrera maketa berri honekin, eta batez ere diskarekin, hobetuz joan- go dela, eta ez bakarrik Ermuan.

G: Kitarra bi, baxua, bateria eta abotsa. Bakoitzaren garrantzia?

E: Kitarak konposizio aldetik soinu tresnarik garrantzitsuenak direla esan daiteke (gure kasuan behintzat), baxua kanta baten erritmoa markatzeko soinu tresna argiesna da bateriarekin batera, talde onetan bi hauen arteko koordi- nazioari izugarriko garrantzia ematen zaio, eta gu ere horrela egiten saiatzen gara. Dena den, gure kasuan ezin daite- ke esan tresna batek besteek baino ga- rrantzi edo presentzia haundiagoa due- nik, guk egiten dugun musika motak, gure rock and rolla egiteko erak, hiru- ren koordinazioa exijitzen duelako, hitz gutxitan esanda, gure soinu tresnen

'Udal gobernua dauka- tenek, denon dirua gas- tatzen dutenek, gorroto diote rock and rollari eta are gehiago euska- raz egiten bada'



Rock-a, Euskaraz eta Ermuan. Hori dok hori!.

'Udalak e' zigun or- daindu, ez guri, ez «Za- rama»koei ezta soinu eta argiak jarri zituzte- nei ere; oraindik zor dizkigute 50.000 pza haiek'

identitate propioa, taldearen soinu- an ulertzen da soilik.

Abotsak, gure ustez, aparteko aipa- mena merezi du. Kasu honetan bi arlo ezberdin bereizi daitezkeelako, ento- nazioa eta hitz bera. Guk entonazioa beste soinu tresna bezala hartzen dugu eta beraz oso inportantea eritzen diogu, besteekiko koordinazioari, entonazio desegoki batek konposizio ona honda dezakeelako, eta alderantziz ere. Eta ge- ro hitzak, ba... guk argi daukagu, eman nahi dugun mezua emateko biderik gar- biena hori dela —zentzu honetan euska- rarena ez da kasualitate hutsa— eta hitz politik eta esanguradun batek kanta bati eman diezaiokeena oso estimagarria de- la, guk hori oso kontutan edukitzen du- gu hitzak egin orduko. Hasiera bateko hitzak lokalismo kutsu nabarmena zu- ten, Ermuko istorio edo jendeaz hitz egi- ten zuten (Kalimero, Beti berdin, Ro- man...); urteak pasa dira eta oraingo hi- tzez ikuspegi zabalagoa dute.

G: Euskarak rock munduan dau- kan indarra, kasualitatea ete?

E: Euskararen indar hori rock-ak Eus- kadin izan duen jarreraren bilatu behar da, kontutan izanik jarrera hori orain dela gutxiko fenomeno dela, eta bestal- detik, Euskararen berrindartze horri es- ker jende askok euskaraz jarduteari ekin diola, beraz, aspektu bi hauek bate- ra hartuta, euskarak rock munduan in- darra lortu duela esateari egokia deri- tzogu.

G: Hasierako planteamenduak mantenduz, noiz arte iraun dezake taldeak?

E: Hasierako planteamenduak aita- tzen direnean, ideologia eta musika planteamendutan banatu behar direla uste dugu, nolabaiteko konexioa man- tenduz. Hasierako planteamendu ideolo- giak zutik dirauela uste dugu, baina bestaldetik musikari dagokionez plan- teamenduak bilakaturik doaz jotzen ikas- ten duzun neurrian, eta gainera hau jen- dearen artean sartzeko eta irauteko guz- tiz beharrezkoa da.



BETI BERTIN (1988.go Api- rila)

Agobiatura gaude, ez dakigu zer egin herri honetan ez daude bi egun desberdin «Lurpe»ra joango gaituk «baska»ren muermoa ikustera. Oso aluak izan behar gara baina gure irudimenak ez du ematen gehiagoko ez daukat dirurik «Ducados» eskatu behar zer egingo diagu putoduro ez badaukagu. Beti berdin, beti berdin beti berdina dau hau. Beharbada gazte baten bizitza horrelako izan behar da. Monotonía honek itto egiten gaitu ta Ermun «mekaguendios» ez baskari moskeatu.



HITZ EDERRENA (1989.go Apirila)

Abesti hau zuretzat olerki bat izango balitz bezala «sprai» kolpe ormetan idazten diren olerkiak bezala. Abesti hau zuretzat Txupetatik zintzilik (txapa erara) egunero agertzen zarelako, deitzen naizulako eta oraindik ezezagunak garelako zu gabe bizitzak baliorik ez duelako oihuka daudenak zuri deika ari direlako. Hitz ederrena, ASKATASUNA Zugatik bizitza askok eman dutelako eta ni hemen zugatik abesten nagoelako. Abesti hau zuretzat maite ditudan pertsonen ematen diadan musu bezala. Gorrotatzen ditudan etsaiek nigandik urrundu nahi zaituztelako hitz ederrena ASKATASUNA Zure beharra ez dutenek «komodios» bizi direlako eta kateak denborarekin ugartzen direlako.